



ESNATZEKO IPUINA

Ipuinez bete digute **memoria**
baina ekintzek osatzen dute **historia!**

Bazen behin lurralde **magikoan**
sagar pozoitsu bat sartzen zena **ahoa**
lokartzen zituen guztiak **atoan**
Edurne Zuri gisa printzesak **zirelakoan!**
Bizi zirenez inguratuta **legez,**
txori txikiak kaiolen baitan **legez...**
Beraz, egun **batez** erabaki zuten jartzea
mundua **andrebes!**

Sinistuz **gero,** sua bezain argi, **bero...**gaitasunetan
ez lortzerik ez **espero!**

Ipotxa **erraldoi,** inurria **dragoi**
bihurtu liteke ahaldundu eta gero!
Gazteluak **hare,** munduaren **jabe**
politagoak gara ispilu hauskor **gabe!**
Pasatu **orria, ongietorria,**
mundu libre baten atarian **zaude!**

Esnatu eta **konturatu:**

Mari Errauskinek badu zer **kontatu**
neurria ondo hartzeko jantzi du **takoia**
emakume aske da lehen zena **morroia!**
Pipi Kaltzaluze -katez motz, hegoz **luze-**
edota **Mafalda,** horren zaila **al da**
izatea zoro, eder, **kategabeko?**
Ez inoren gainetik, ez inoren **menpeko!**

Ireki **burua,** ta itxi **liburua!**
Filosofia aldatzeko heldu da **ordua!**
Protagonista zara, hau da **ikasgaia:**
historia idatzeko heldu da **garaia!**

3, 2, 1 arma tiro **pum!**
Emakumeen balak ez ditugu **entzun!**
Historiak zuloa dauka **amantaletan**
izen asko falta da oraindik **orrietan!**
Kristina Mardaras, Maurizia **Aldaiturriaga...**
atera zinetenak lehenbizi **plazara;**
ausartak, finean erreferente **apartak,**
zuei esker, gaur gehiago **gara!**



Izar
Mendiguren
Cosgaya

Rap!

Hala bazan edo ez **bazan**
sar dadila zure **kalabazan**
eta atera behar duzun **plazan**
egunez amestu, zoriontsu **izan!**